

TESTUA:

MENDIAREN HEGALETAN

Jesus oraindik etxean sartu gabe zegoen, kanpoan, espiritu batetik libratutako mutil baten aitarekin hitz egiten eta, lasaitasuna berreskuratuta, mutilak ere parte hartzen zuen elkarrizketan. Barruan, dizipuluaren taldeak komentatu egiten zuen Maisuak eman zuen erantzuna, beraiek zergatik ezin izan zuten egotzi espiritua galdetu ziotenean:

-Espiritu mota hori otoitzak eraginda bakarrik ateratzen da –esan zien.

Pedrok, Jesusekin mendira igo zenak, ondo asko oroitzen zuen otoitzean ari zirenean antzaldatu zela Jesus haien aurrean.

-Otoitzak zergatik ez du izango mutil horren bizitza antzaldatzeko indarra? Mutila eta aita ilunpetan zeuden, eta Jesusek sendabidearen argia iritsarazi die. Horregatik esan du sinesten duenak den-dena lor dezakeela.

Guztien artean gogora ekartzen zituzten mutilaren aitaren hitzak eta eskaerak: gogoratzen zuten, hitz egin bainoago, oihi bat bota zuela, sakonenean ukitutako baten antzera:

-Sinesten dut! Zatoz nire fede ahulari laguntzera!

Ez zuen esaten “gu”, bere zoria mutilarenarekin lotuta; bere buruaz hitz egiten zuen, bere fede gabezia onartuta. Halere, aldi berean, sinestun bezala ere agertzen zen: bestela, nola eskatuko zion beste bati laguntza? Bere eskaera semearen sendatzea lortzetik haratago zihoan. Jesusen errukiari dei egiten zion, bere boterearen atzean, errukitzeko gauza zen baten bat aurkitu izan balu bezala.



Tomasek kopetilun entzuten zuen eta hitz egin zuen, bere fedea gizon harena bezain zalantzakorra zela aitortzeko:

-Ez zirudien gehiegi fidatzen zenik Jesusekin, esan baitzion: “Ahal baduzu...,” eta gero fedea falta zitzaiola onartu zuen. Hori esan zuenean bururatu zitzaidan ez zuela eskatzen semearentzat bakarrik, bere bizitza guztia jartzen zuela haren aurrean, barruko lehia batean zatituta: sinetsi nahi zuen, baina ez zuen bere burua sinesgabetasuna gainditzeko gai ikusten. Horrela sentitzen naiz ni ere batzuetan, eta ez nago seguru zertan ote datzan Jesusek eskatzen duen fede hori...

Oraingo honetan, Joan izan zen hitz egin zuena. Menditik jaitsi zirenetik isilik egon zen, baina orain hitza hartu zuen:

-Uste dut sinestea eta ez sinestea elkarrekin joan daitezkeela, inoiz ez gaude federik ezaren mehatxutik libre. Eta ezin dugu mutilaren aitak egin zuena beste ezer egin: Jesusekiko topaketara eraman hori guztiori. Jesusek esan dionean: "Sinesten duenak den-dena lor dezake," gizon horrek ez zeukala federik sentitu du, baina paralizatuta gelditu ordez, bere egia adierazten ausartu da eta laguntza eskatu dio Jesusi. Bere kabuz ezin zuen irtenbiderik aurkitu, baina bide baten bila jardun du: Maisuarengana jo du, harengan bazegoela bere sufrimenduari aurre egiteko samurtasuna sinetsita.

Eta, orduan, Jesusek agirian utzi dio zer-nolako indarra dagoen ezintasunean: berarentzat zera honetan datza fedea: gu geugan bermearen bila jardun ordez, zabal-zabalik egotean Bestearen aurrean. Eta "Beste" hori, mendian hitz hauek esan dituen da: "Hau da nire Seme maitea. Entzun iezaiozue." Jesusek eskutik hartu du berarengana jo duen gizon hori, eta haratago eraman du, harik eta Aitarekiko harremanak bien artekoa bereganatu duen arte. Ez ote da antzaldatze hori izango gutako bakoitzarengan aurkitu nahi duena?



#### **GALDERAK:**

**Historia hau nire historia da.** Nik ere sarritan esaten dut: "Sinesten dut, Jauna, baina zatoz nire fede eskasari laguntzera." Eta misteriotsuki zera gertatzen zait, nire fedearen hauskortasuna onartzen dudana bakoitzean, indar eta adore handiagoa esperimendatzen dudala. Beharbada horregatik esango zuen Paulok: "Ahula naizenean, orduan naiz indartsu." (2 Kor 12,10).

**Partekatu egiten dugu gure fedea.** Newman kardinalaren hitz hauek gogoratzen ditugu: "Fedea zalantzak jasateko gaiatsuna da"; Karl Rahnerenak: "Bizitzari adorea aurre egitea da sinestun izatea"; eta Rainer Maria Rilkerenak: "Ohitu egin behar gara galderekin bizitzen." Elkarri esango diogu zer-nolako oihartzuna daukaten baiespen hauek gudan eta zer-nolako "elikagaiak" behar dituen fedea, sendotzeko.

#### **BERRI ONA. Markos 9, 14-29**

Beste ikasleengana itzuli zirenean, jendetza handia ikusi zuten haien inguruan, eta lege-maisu batzuk haiekin eztabaidan. Jendea harriturik gelditu zen Jesus ikustean eta lasterka joan zitzaizkion agurtzera. Jesusek galdetu zien: –Zer zenuten horiekin eztabaidan? Jendarteko batek erantzun zion: –Maisu, hemen ekarri dizut neure seme

hau: hitzik egiten uzten ez dion espiritua dauka. Non edo han espiritua jabetzen zaionean, lurrera botatzen du, eta mutikoa, lerdea dariola eta hortz-karraska, gogor-gogor gelditzen da. Zure ikasleei eskatu diet espiritua botatzeko, baina ezin izan dute. Jesusek esan zien: –Hau gizaldi sinesgogorra! Noiz arte egon behar ote dut zuen artean? Noiz arte jasan behar ote zaituztet? Ekarri mutila. Eraman egin zioten. Jesus ikusteaz batera, espirtuak gogor astindu zuen mutikoa, eta lurrean iraulka eta lerdea zeriola utzi. Jesusek mutilaren aitari galdetu zion: –Noiztik dago horrela? Hark erantzun: –Umetandik. Askotan bota izan du sutara eta uretara ere, hilarazteko. Ezer egin ahal baduzu, erruki zaitez gutaz eta laguniezaguzu. Jesusek esan zion: –Ahal dudan diozu? Dena ahal du sinesten duenak. Orduan, mutilaren aitak deiadarka: –Sinetsi nahi dut! Lagundu sinesgabe honi. Jesusek, jendea pilatzen ari zela ikusirik, mehatxu egin zion espirtu gaiztoari: - Espiritu gor eta mutua, neuk agintzen diat: irten hadi mutil honengandik eta ez sartu gehiago. Garrasika eta berebiziko astindua emanaz, atera zen espirtu gaiztoa. Mutikoa hilik bezala gelditu zen. Ia denek hila zegoela zioten; baina Jesusek eskutik hartu eta altzarazi egin zuen, eta mutikoa zutitu egin zen. Jesus etxeratu zenean, ikasleek bakarrean galdetu zioten: –Eta guk, zergatik ezin izan dugu bota espirtu hori? Erantzun zien: –Gisa honetako espirtuak botatzeko bide bakarra otoitza da.

### **OTOITZA: JAUNA, HANDITU GURE FEDEA**

Jauna, handitu gure fedea.

Erakutsi guri, fedea ez datzala zerbait sinestean,  
Zugan sinestean baizik, Jainkoaren seme gizon egin Horrengan,  
gure barrua zure Espirituari irekitzeko, zure Hitzak atzeman gaitzan uzteko,  
zure biziera bizitzen ikasteko eta zure urratsei hurbiletik jarraitzeko.  
Zu bakarrik zara «gure fedearen hasiera eta betetasuna».  
Jauna, handitu gure fedea.

Emaguzu erdigunetzat funtsezko dena izango duen fedea,  
zure Ebanjelioaren muintetik urruntzen gaituzten eranskinetatik  
eta adabaki gehigarrietatik garbitua.  
Erakutsiiezaguzu garai hauetan fedea bizitzen,  
ez kanpoko euskarrietan sostengatua, baizik zure presentzia bizian,  
geure bihotzetan eta geure fede-elkarteetan bizi dugun presentzian.  
Jauna, handitu gure fedea.

Egizu, zurekin bizi-harremanak era sakonagoan izan ditzagula,  
jakinik Elizan zu zaitugula, gure Maisu eta Jaun hori,  
orotan lehenengoa, hoberena, baliotsuena eta erakargarriena.  
Emaguzu fede kutsagarria, kristautasunaren aro berri batera bidera gaitzakeena,  
zure Espirituari eta zure ibilbideari leialagoa izango den kristautasunera.  
Jauna, handitu gure fedea.



Biziaraz gaitzazu Jainkoaren erreinuko zure egitasmoarekin bat eginez,  
zinez eta konbentzimenduz parte hartuz, bizitza gizatarragoa egiteko,  
Aitak nahi bezala.

Lagundu gaitzazu fedea apalki bizitzen,  
Jainkoarenganako suaz eta gizakienganako errukiaz.  
Jauna, handitu gure fedea.

Erakutsiezaguzu bizitza era ebanjelikoagoan bizitzen,  
hala moduzko kristautasunera ohitu gabe, non gatza gezatzen den  
eta Elizak, modu harrigarritz, legami izaera galtzen duen.  
Iratzar ezazu gure artean lekukoen eta profeten fedea.  
Jauna, handitu gure fedea.

Ez gaitzazu utzi gurutzerik gabeko kristautasun batean erortzen.  
Kontura gaitzela fedea ez dela komeni zaigun Jainkoagan sinestea,  
gure erantzukizuna sendotzen eta maitatzeko ahalmena garatzen duen  
Harengan sinestea baizik.  
Erakutsiezaguzu zuri jarraitzen, egunean eguneko gurutzea hartuz.  
Jauna, handitu gure fedea.

Suma zaitzagula gure artean pizturik,  
gure bizitzak eraberrituz eta gure elkarreak sustatuz.

*(Jose Antonio Pagola)*

